

Vietnamen dioxina zuhaitzak landatuz borrokatzen da

Gerrako abioi batek bere hegadan pozoia zabaldua milioika urteko oihana kixkali dezake eta dioxina-ihintzez bustitako herritarren haurrak malformaziorik gogorrenetara kondentatu. Vietnamen ikusten da. Orain, landareak birlandatu ahal bezala xamurtu nahi lirateke izurriaren orbain batzuk.

PHUNG TUU BOI JAUNA kazetariekin hurbildu da lerroan landatutako zuhaixka arantzatsuetara. Handik metro gutxira, behi bat lasai ari da alhatzen esmeralda koloreko belarretan. Vietnamgo erdi aldeko muinoetan. Vietnango erdi aldeko muinoetan. Vietnango erdi aldeko muinoetan. Vietnango erdi aldeko muinoetan. Vietnango erdi aldeko muinoetan. Vietnango erdi aldeko muinoetan.

Behia gaixorik dago, hankapeko lokatza dioxinaz kutsatuta dagoelako. Vietnamgo gerra garaian hilabete batzuetan hegazkin amerikarren basea egon zen parajeotan, eta militarrek aspaldi joan ziren arren bertan geratu da hemengo biltegitan eduki eta inguruetan parrastan bota zuten Agent Orange famatuaren dioxina.

Christie Ashwanden kazetariak kontatu nahi zuen vietnamdarrek nola borrokatzen duten oraindik amerikarrek oihana garbitzeko erabili zuten pozoia ondo ondo. Pulitzer Center Crisis Reporting web gunean erakusten ditu horri buruzko bideoak, dokumental hunkigarriak. Idatzizko erreportajea *International Herald Tribune* egunkarian plazaratu du, eta honetan aurkeztu du Phung Tuu Boi, Hanoitik urrun pozoiketaren ondorioei ahal bezala adabakiak ipintzen saiatzen den gizona.

Boi 1975ean hasi zen gai honetan lanean. Orduan aurkitu zuen A Luoi bailara, gerra denboran A Shau deitu zutena. Haranotan pako, ta oi, katu eta kinh etnietako jendea bizi da, oihanetako herriak, Vietnamgo kultura nagusiak oraindik asimilatu gabeak. Tributotako jendeak gela bakarreko etxolatan bizi dira, ez iturri eta ez komun, ortu txiki batzuek eta basoak ematen dietenetik.

Botanikoa da ikasketaz Boi, eta naturak –oihaneko landareek eta animaliek– jasandako kalteez okupatzera iritsi zen. Laster ohartu zen basoko zuhaitz, tigre eta elefanteentzako bezain garrantzitsua izan zitekeela bere laguntza bertako herritarrentzako.

Gerra garaian amerikarrek hegazkinetatik ihintza moduan zabaldu zuten arboladiaren gainean Agent Orange famatua, hostoak ihartu eta zuhaitzak galtzeko. Landaredia suntsitutakoan, montzoiek ekarritako euriteek zoruari lur geruza eraman zioten eta babesik bezala janaririk gabe utzi. Ondoren, belar gaiztoak nagusitu ziren denetan, eta zuhaitziaren berreskuratzea eragotzi. Milaka hektarea daude horrela hondaturik Vietnamen, gerratetik.

Boik basoa berreskuratzekeo prozesu luzea abiarazteko, akazia australiarra hautatu zuen. Akazia hau urtean pare bat metro luzatzen da eta bost urteren buruan moztu daiteke papera egiteko edo altzaritarako. Era berean, zuhaitz honek zorua aberasten du eta

Erretratu txikian Phung Tuu Boi aditu vietnamdarra kazetariari erakusten ari zaie dioxinaz kutsatutako eremu bat eta hori oihanez birlandatzeko antolatuta duten sistema. Argazki handian, Christie Ashwanden kazetaria eta bere ekipoko kide bat Vietnamgo A Luoi bailarako Dong Son herriraino, bertako umez inguratuta. Haurrotako batzuek jaiotzatik dakartzate gurasoek gerra denboran arnastu zuten Agent Orange pozoia eragindako gaixotasunak, eta denek segitzen dute dioxinaz kutsaturiko barazkiak eta haragia jaten. Hanoiko eta Washingongo gobernuak tratutan ari ziren, laguntzak hitzartu nahian gerran amerikarrek jaurtitako pozoia kimikoez kaltetuenez; baina porrot egina du ahalegin horrek.

beste arbolei sustraitzeko behar duten egitura ematen die. Akazia landatu eta urte gutxira, nekazariak saltzeko moduan dira. Lur goseak maite ditu eta aldi berean belar txarrei lekua kentzen die.

Australian ia 1.000 akazia espezie dago, eta kazetariak ez digu argitu zein aukeratu zuten Phung Tuu Boi. Dakiguna da akazia xume honekin Vietnamgo milaka hektarea soildu birlandatu dituztela bere agindupean. Baina dioxinaz utzi dituzten soiluneak baino askoz arazo larriagoak Vietnamgo zelaietan.

Pozoia arantzaz inguratu

Amerikarrek Agent Orange oihanak ihintzatzeko erabili bazuten, askoz kopuru handiagotan geratu zen pilaturik Indotxinako puntu askotan. Mendebaldean jasangarritzat jotzen dena halako 200 dioxina unitate metatzen dira gune horietan, Boik behia “oso-oso gaizki” dagoela esan duena bezalakoetan. Dioxina edo PCDD (*polychlorinated dibenzodioxins* ingelesez) hori elikadura zorutik belarretan barrena behiaren haragiraino eta elikadura kate osoraino dago zabaldua inguruotan.

Dioxinaz betetako guneok garbitzea milaka milioi dolar kostako litza-teke. Holakoak teoriaraino ez dira planteatzen, zeren eta gauzatzen hasierakoan orain artean AEBetako eta



Vietnamgo Gobernua ez baitira analisi orokorrean ere ados jarri. Pozoia suntsitu ezinean, gune arriskutsuenak hesitzea nahiko lukete gutxienez lortu, eta hori ere ez da beti erraza. Kutsadura ikusezina denez, eta herritarren beharrak handiak, zaila da pertsonak bezala abereak belaze horietatik aparte atxikitzea.

Eremu pozoituenak hesitzeko ahalginak ez du arrakastarik lortu. Ez ikusi, ez usaindu eta dastatzez ere nabarmendu ezin daitekeen dioxina etengabe iristen da animalien okel eta gantzetara, eta baita mandioka bezalako landareetara ere. Azkenean, inguruotako herritarren odoletan eta haurrak edoskitzen ari diren emakumeen bularrean dioxina kopuru handitan aurkitu dute ikertzaileek.

Kazetariak Dong Son herrixkako alkatea aurkitu dute, eta honek esan die bertako 240 familietatik 60 dardela TCDDagatik gaixorik. Horietan badira haurrak zango edo beso okerez sortu direnak, edo jaiotzetik sorrak, edo kantzerra edo diabetes dauzkatenak, atzeratuak... Beren soinetan edo mundura ekarri dituzten haurretan eritasun ikaragarriak nozitzen dituzten lekukoak erakutsi dizkigu Christie Aschwanden kazetariak *Pulitzer Center Crisis Reporting* web gunean.

Dioxina garbitzea lortu ezinik, Phung Tuu Boi basozainburuak hesitzea da epe laburrean lortu nahi duen konponbidea. Hau da: ez animaliek eta ez pertsonak zeharkatu nahiko ez duten hesi arantzatsua landatu, aldi

beretan inguruko jendea onuraren bat emango dien hesia, ebaki ez dezaten. Oihana berregiten laguntzeko Australiako akazia ekarri duen bezala, hesi berezi horiek eraikitzeko sastraka aproposa *Gleditschia australis* zuhaixkan aurkitu duela dio Boik.

Gleditschia akazia bezala gogorra da, xomorroen erasoak ondo gaintzen ditu eta arantza luzeak ditu, inguruko baseritarrei egurretara sastraka honen bila jotzea eragozteko adina-koak. Eta gainera fruituak ematen ditu, jateko nahiz erremediatarako erabil daitezkeenak.

Dioxinaz betetako kokagune batzuk aukeratu eta 30.000 dolar kostako den landaketa proiektua jarri zuen martxan, horretarako Munduko Bankuaren laguntza txiki bat ere eskuratuta. Joan den abenduan 10.000 zuhaixka landatu zituen, baina lehenbiziko saioak ez du arrakasta handiegirik erdietsi: gogorrak izanagatik akazia gutxi itsatsi dira eta *Gleditschia* sastraka asko abereek jan dituzte, beren arantzak artean txiki-giak zirelako.

Baina Boik urte asko daramatza lantegi honetan porrot batengatik Hanoi-ko bulegoko lan errazera itzultzeko. Udazken honetarako bigarren ahalegina ari da prestatzen. Oraingotan hesia zabalagoa izango da, akazia gehiagorekin babestua eta aurretik lurzorua ongarriritu du, landare berriei lehen bultzada emateko. Behar dituen 20.000 dolarrak ez lirarteke asko pozoia zabaldu zutenek emateko. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Konfiantza delako garrantzitsuena

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, etengabe produktu berriak eta zerbitzu berriak bilatzearen bidez.

ZINKUNEGI OPTIKA

Hemani, 4 - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL. 943 420 624

G A R A N T I A